

## Kriminologiako Gradua aztergai-4:

### AUZITEGIKOPSIKOPATOLOGIA: OROKORTASUNAK

Irakasgaia: Komunikazioa Euskaraz Arlo Juridikoan

*Nagore COTO RUIZ*

**AURKIBIDEA:** I. Laburpena. -II. Sarrera. -III. Psikopatologiaren definizioa. -IV. Auzitegiko Psikopatologia irakasgaia: 1. Irakasgaiaren helburuak. 2. Eduki teoriko-praktikoak. 3. Aplikazio eremuak. -V. Gogoeta.

## I. Laburpena

XX. mendeko amaieraren eta XXI. mendeko hasieraren artean, psikologia eta kriminologia diziplinak hasi ziren kriminalitatea aztertzen. Helburua da delituzko jokabideak azaltzen dituzten diziplina eta metodologia ezberdinen ezagutzak biltzea. Diziplina horien artean, auzitegiko psikopatologia dago. Artikulu honen bidez, lehenik eta behin, azaldu nahi da Auzitegiko Psikopatologia irakasgaiaren garrantzia kriminologiako/zuzenbideko profesionalen prestakuntzan. Ondoren, psikopatologiaren kontzeptua aztertuko da, eta azkenik, irakasgaiaren helburuak eta eduki teoriko-praktikoak landuko dira.

## II. Sarrera

Nahiz eta gizakiak bulkadak kontrolatzen dituen espezie bakarra izan, gerta daiteke mekanismo inhibitzailea ez funtzionatzea. Hori dela eta, bulkaden deskarga oldarkorra ematen da. Horren ondorioz, modu argian pentsatzeko gaitasuna eragozten da, eta krimena gerta daiteke. Beraz, krimena erreakzio kontrolaezinen ondorioz gerta daiteke.

Gizartean, krimena lege moralaren urraketa da eta delitu larritzat hartzen da. Delituzko ekintzak ondorio larriak ekarriko ditu. Alde batetik, aurreiritziak daude, bai kriminalarentzat bai biktimarentzat. Beste alde batetik, krimenaren aurrean, legeak zigorrak ezartzen ditu. Zigorrak delitugilea gizartetik baztertzea ekarriko du. Hala ere, gaur egun, zigor askatasun-gabetzailearen helburua da subjektuari birgizarteratzeko aukera ematea eta ez gizartetik baztertzea. Hori da legearen espiritua, nahiz eta beti ez lortu.

Kriminologia delitugilea eta delituzko ekintza horiek aztertzen dituen zientzia da. Horretarako, diziplina ezberdinen ezagutzak kontuan hartzen ditu, horien artean, medikuntza, psikologia, zuzenbidea, soziologia, psikologia soziala, psikopatologia, eta abar.

Psikopatologiak, berriz, gaixotasun edo nahaste mentalak ikertzen dituen zientzia da, baita izaera eta arrazoia ere. Hori dela eta, ezinbestekoa da kriminologiako eta zuzenbideko ikasleak auzitegiko psikopatologiari buruzko ezagutzak garatzea.

### III. Psikopatologiaren definizioa

Etimologiaren ikuspegitik hiru osagai ditu "psikopatologia" hitzak:


- Psyché: arima
- Páthos: gaixotasuna
- Lógos: arrazoia

Hortaz, arimaren gaixotasunen azterketa da, edo pertsonalitatearen jokaera disfuntzionalen azterketa. Hau da, ezohikoak diren prozesu psikikoen azterketa. Hortaz, psikopatologiaren helburua da pertsonalitatearen disfuntzioak ikertzea eta argitzea.

Psikopatologiaren inguruan adituek kontrako bi ikuspuntu dute. Alde batetik, hainbat adituek psikopatologia kritikatu egin dute. Haien ustez, psikopatologiak etiketatu eta estigmatizatu egiten ditu jokabidean asaldurak jasaten dituzten pertsonak. Gainera, etiketa horiek arazoa larritu eta tratamendua kaltetzen dute.

Beste alde batetik, auzitegiko psikologiaren hainbat adituen ustez, psikopatologiaren ezagutza ezinbestekoa da. Alde batetik, delituzko ekintzetan parte hartzen duten faktoreek ezagutzeko eta zehazteko, eta beste alde batetik, delituzko ekintzak burutu dituzten pertsonak jasoko duten ondorioak ezartzeko. Adibidez, nahaste mentalek ez egozgarritasuna ekar dezakete. Kasu honetan, garrantzia handia izango dute honako termino hauek: trauma osteko estresaren nahasmendua, antsietatea, psikosia, depresio akutua, nahaste antisoziala, eta abar.

Kontzeptu hauek "Psikopatologiako Hiztegia" kontsultatu daitezke. Blas Erkizia Amilibiak sortutako hiztegia da, hain zuzen, psikopatologiari buruzko lehenengo hiztegia. Hiztegi hau deskripzio terminologikoetatik haratago doa, eta azaltzen diren kontzeptuei izaera entziklopedikoa ematen zaie.



ESTEKA: <http://antigua.ome-aen.org/euskera/hiztegia/sarrera.htm>

## IV. Auzitegiko Psikopatologia irakasgaia

### 1. Irakasgaiaren helburuak

“Auzitegiko Psikopatologia” Kriminologiako Graduoko hirugarren mailako nahitaezko irakasgaia da. Irakasgaia Nortasuneko, Balioespeneko eta Tratamendu Psikologikoko sailak eskaintzen du.

Irakasgaiaren, kriminalitatearen faktore psikopatologikoak aztertzen dira. Honekin batera, delitua egin duen subjektuak erakuts dezakeen kontzientzia eta nahimen gradua aztertzen da.

Auzitegiko psikopatologia kriminologiaren beste irakasgaiarekin lotu daiteke. Hau da, erabilgarria da beste irakasgaien ideiak garatzeko, esaterako, Delitugileen Tratamendu Psikologikoko irakasgaia. Gainera, ikasleak tresna eta irizpide gehiago lortuko ditu beste irakasgaiak ulertu ahal izateko, adibidez, soziologia irakasgaiaren desbideratzearen teoria ulertzeko.

### 2. Eduki teoriko-praktikoak

Tresna eta irizpide horiek lortzeko, auzitegiko psikopatologiaren oinarriko eduki teoriko-praktikoak landuko dira. Eduki hauek zortzi ikasgaietan banatzen dira. Ikasgai bakoitzean azalduko da DSM-Veko patologia zehatza, eta patologia horrek jokabide deliktiboarekin duen erlazioa. Eduki teoriko-praktikoak honako hauek dira:

1. PSIKOPATOLOGIA ETA ERANTZUKIZUN PENALA. Egozgarritasuna oinarri psikologikoko kontzeptu juridikoa da, zuzenbide penaletik datorrena. Egozgarritasuna da arau-hausleak duen gaitasuna gertakizunaren erantzulea izateko. Gaitasun hori aztertzeko kontuan hartuko dira bi kontzeptu: ezagutza eta borondatea.

Hori dela eta, subjektuaren egozgarritasunean aldaketak egiteko beharrezkoa da ezagutza eta borondatea hondatuak egotea (Vázquez Mezquita, 2005). Kode Penalean aurreikusten dira erantzukizun kriminalaren salbuespenak, eta horien artean nahaste mentalak daude. Hortaz, auzitegiko psikopatologia ezinbestekoa da egozgarritasun penala zehazteko.

2. ESKIZOFRENIA ETA BESTE NAHASTE PSIKOTIKO BATZUK. Nahaste hauek nahasmendu mental alienagarrienak dira. Arraroak, adoretuak eta normalak ez diren jokabideak eragiten dituzte, eta, askotan, pertsonalitatearen narriadura eta ezintasun soziala dakarte. Honekin batera, eskizofrenia eta nahaste psikotikoak jokabide oldarkorrak eragiten dituzte. Jokabide hauek logika gabekoak dira, eta erabiltzen duten indarra gehiegizkoa da.

Nahaste hauek eragina dute subjektuaren bi gaitasunetan, hain zuzen, errealitatea baloratzeko eta bere ekintzak kontrolatzeko gaitasunetan. Hori dela eta, ondorio penala da erantzukizun penalean aldaketak ematea. Baina, aldaketak emateko beharrezkoa da nahastearen diagnostikoa egotea, eta nahastea lotura zuzena izatea gertaera deliktiboarekin.

3. NAHASTE AFEKTIBOAK. Nahaste afektiboak mota ugariak dira. Alde batetik, depresio-aldiak daude, non ohiko aktibitateekiko interesik eza nabarmentzen da. Beste alde batetik, mania-aldiak daude. Aldi hauetan, ezaugarri garrantzitsuena da subjektuaren bizitzan ondorio negatiboak eragiten dituen gogoaldarte euforikoa, lagunkoia edo haserrekorra izatea.

Depresio nahasteetan, delinkuentzia tasa oso baxua da beste nahaste psikopatologikoekin alderatuta. Hala ere, aipatzekoa da subjektu hauek egiten dituzten delituak gertuko pertsonen kontra direla, esaterako, gertuko pertsonak hiltzea bizitzaren sufrimendua saihesteko.

Nahaste maniakoetan, berriz, delinkuentzia tasa altuagoa da. Subjektuek oldarkortasun handiko krisialdiak dituzte. Horren ondorioz, delituzko jokabideak eman daitezke, esaterako, lesioak edo giza-hilketak, eta ez dira saiatzen delituak ezkututzen edo justifikatzen.

Egozgarritasunari dagokionez, nahaste maniakoek asaldura psikiko larriak eragiten dituzte. Hori dela eta, kasu hauetan egin beharreko galdera da ea kaltetuta dauden

errealitatea hautemateko eta baloratzeko gaitasunak. Horren arabera, egozgarritasunean aldaketak emango dira edo ez.

4. NAHASTE DISOZIATIBOAK. Nahaste disoziatiboetan asaldurak ematen dira nortasunean, oroimenean, pertzepzioan edo kontzientzian.

Delituei dagokienez, subjektuek egin ditzaketen delituzko ekintzak hainbat motatakoak dira, haien artean, lapurretak, lesioak eta giza-hilketak.

Delitu hauek egiten diren momentuan ez da errealitatearen kontzientzia galtzen. Baina gertaerak eragin dezakeen antsietatearen edo beldurraren ondorioz, ekintzaren kontrola galdu dezakete. Hori dela eta, gertaerak patologikoak kontsideratuko dira, beti ere kontuan hartuta sintomen intentsitatea eta sintomen erlazio zuzena gertaerarekin.

5. NAHASTE ADIKTIBOAK. Nahaste adiktiboan ondorioz, subjektuak galdu dezake ekintzen ez-zilegatasuna ezagutzeko eta ulertzeko gaitasuna. Horrek, delituzko ekintzak egitea eragin dezake, esaterako, lapurretak, ebasketak, lesioak, giza-hilketak, eta abar.

Hortaz, Kode Penalak bi zirkunstantzia jasotzen ditu, egozgarritasunean eragina izango dutenak. Alde batetik, Kode Penalaren 20. artikulua arabera, guztiz toxikatuta egoteak erantzukizun penalaren salbuespena dakar.

*"Arau-hauste penala egitean guztiz toxikatuta dagoena, edari alkoholdun, droga toxiko, sorgogarri, gai psicotropiko edo horien antzeko ondoreak sortzen dituzten bestelako gaiak kontsumitzeagatik, baldin eta subjektuak egoera hori eragin ez badu arau-hauste penala egiteko asmoz, edota subjektuak delitu egitea aurreikusi ez badu, edo aurreikusi behar izan ez balu; edota abstinentzia-sindromepean dagoena, gai horiekiko mendekotasunak eraginda, baldin eta sindrome horrek egitatea zilegia ez dela ulertzea edo ulermen horren arabera jardutea eragozten badio."*

Beste alde batetik, Kode Penalaren 21. artikulua arabera, egoera aringarria kontsideratuko da aurreko kapituluan azaldutako arrazoiak betetzen ez dituen erantzukizunetik salbuesteko behar diren betekizun guztiak.

6. BULKADEN ETA JOKAERAREN KONTROLAREN NAHASTE SUNTSIGARRIAK. Nahaste hauen ezaugarri garrantzitsuena da eutsi ezineko

inpultsibotasuna. Inpultsoak asetzeko beharra dute, eta tentsioa areagotuz joaten da. Behin inpultsoak asebetek egon lasaitasun sentsazioa lortzen dute.

Hortaz, subjektuek eutsi ezineko barne tentsioa dute. Horren ondorioz, ekintza inpultsiboak egiten dituzte. Hala ere, ekintza horiek egiten ari diren bitartean ez dute kontzientzia gaitasuna galtzen. Hau da, ongia eta gaizkia ezberdintzen dute.

Egozgarritasunean aldaketak emateko frogatu beharko da nahasteak duen eragina ezagutzaren eta borondatearen gaitasunetan. Horretarako, kontuan hartu beharko dira sintomen intentsitatea, baita alkoholaren edo drogen kontsumoa ere.

7. NORTASUNAREN NAHASTEAK. Nortasunaren nahasteetan bi ezaugarri nabarmentzen dira: delituen aniztasuna eta delituzko ekintzen errepikapena. Delitu ohikoenak: lesioak, giza-hilketak, eraso sexualak, lapurretak, ebasketak eta iruzurrak.

Nahaste hauetan, egozgarritasuna oso eztabaidagarria da, ulertzeko eta arrazoitzeko gaitasunak kaltetuta ez daudelako. Hortaz, haien ekintzen zenbaterainokoak ezagutzen eta ulertzen dituzte. Hori dela eta, autore batzuk pertsona hauen egozgarritasun osoa aldarrikatzen dute. Beste autore batzuk, berriz, uste dute borondatea kaltetua dagoela sentitzeko gaitasun ezaren ondorioz.

Ikus daiteke egozgarritasunaren balorazioa oso zaila dela, eta kasu bakoitza indibidualki aztertu beharko dela zehatz-mehatz.

8. PRAFILIAK. Parafiliak sexu joeraren nahasteak dira. Subjektuek aldentzen dira gizarteak ezarritako joera sexualaren arauetatik. Kitzikapen sexuala lortzeko behar dituzten estimuluak ez dira normalak kontsideratzen gizartean, esaterako, bikotearen sufrimendua edo umiliazioa, adingabeekin erlazio sexualak, eta abar.

Hala ere, parafilien diagnostikoek ez dute berez egozgarritasunaren aldaketa eragiten. Normalean, parfilietatik eratorritako ekintzak zigorgabeak dira. Hala ere, parafilia zehatz batzuk zigorgarriak dira, hain zuzen, exhibizionismoa, paidofilia eta, kasu batzuetan, sadismoa lesioak, eraso sexualak edo giza-hilketak ematen badira.

### 3. Aplikazio eremuak

Lehen esan dugunez, eduki teoriko-praktiko hauek oso lagungarriak izan daitezke kriminologiaren eta zuzenbidearen arloan.

Alde batetik, Auzitegiko Psikopatologia ezinbestekoa da kriminologiarentzat pertsonalitatearen edo bestelako nahasmenduen inguruko ezagutzak garatzeko, askotan delituak burutzen dituzten subjektuek nahasmendu mentalak pairatzen dituztelako.

Zuzenbideari dagokionez, bestalde, Auzitegiko Psikopatologiak zerikusi zuzena du Zuzenbide Penalarekin, edo, behintzat, Auzitegiko Prozedura Kriminalarekin, egozgarritasuna ebaluatzerako orduan. Hori dela eta, interesgarria izango litzateke Auzitegiko Psikopatologia irakasgaia gehitzea Zuzenbideko karreraren.

## V. Gogoeta

Urteetan zehar, gaixotasun mentalak delinkuentziarekin lotu dira, delituzko jokabide zehatz batzuk hainbat buru-anomaliekin zerikusia dutelako.

Hala ere, asaldura psikopatologikoak dituzten pertsona gehienek ez dute deliturik egiten eta haien jokabidea normalean ez da bortitza. Baina, pertsona batek osasun mentaleko gaixotasuna badu, zalantzakoa izan daiteke ea bere buruaren jabe den delitua egin duenean. Era berean, delituaren prebentzioari begira...

Hori dela eta, garrantzitsua da gaixotasun mota hauek aztertzea delitua ulertu ahal izateko. Hau da, subjektuari delitua egitera bultzatzen dizkion arrazoiak eta motibazioak ezagutzeko. Beharrezkoa da aztertzea subjektuak delitua ezagutzeko eta ulertzeko gaitasunak mantentzen dituen. Askotan, buruko nahasmenduen ondorioz, subjektuak ezin du ulertu delituzko ekintzaren ez-zilegitasuna. Hori dela eta, auzitegiko psikopatologia irakasgaia kontuan hartu beharko da subjektu baten egozgarritasuna zehazteko.

Laburbilduz, Auzitegiko psikopatologia irakasgaia ezinbestekoa da delitu batzuk ulertzeko. Esan dugunez, pertsona batzuk gaixotasun mentalen ondorioz delituak burutzen dituzte. Hori dela eta, beharrezkoa da subjektu hauen erantzukizun kriminala zalantzan jartzea eta tratamendu egokia jasotzea.